

**MUSIKA
BULEGOA**

Batzen
gaituena.

MUSIKA
BULEGOA
SARIAK

2025

**MUSIKA
BULEGOA
SARIAK**

MUSIKA
BULEGOA
SARIAK

Maiatzak
14 Mayo

VITORIA -
GASTEIZ
JIMMY JAZZ

19:30

musikabulegoa.eus

MUSIKA BULEGOA SARIAK 2025
PRENTSA DOSSIERRA

Arineketan



Arineketan Iñar Sastre pianojolea eta Jagoba Astiazaran txistularien proiektu bateratua da. Aspaldiko adiskidetasunean oinarritua, elkar hartze horren adibide argitaratu berri den diska. Euskal dantza erritmo eta doinu eraberrituak.

Saritutako lana: Zaharrak berri

Kantu tradizionalen gaurkotzea euskal kantari berrien ahotan: Ødei, Nøgen, Olaia Inziarte, Idoia, Mikel Urdangarin, Ansa ahizpak, Ainara Ortega. Euskal ondarearen berreskuratze eta biziberritzea.

Epaimahaia:

Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaran sekulako musikariak dira, tradizioa nola berritzen duten bestetik eta zein jenderekin elkartu diren eta nolako emaitzak lortu dituzten abestiz abesti. Ezbairik gabe, lana kalitate altukoa eta freskoa da, jazz mundua, folka eta pop kultura uztartu dituen.

Bloñ



Bloñ Behe Nafarroako taldea Durangoko Azokan lortutako sormen bekatik dator. Musika proiektu hau Maia Iribarne Olhagaraik eta Paxkal Irigoyen Etxeberrik osatzen dute.

Saritutako lana: Bañolet Kantuz (zuzenekoa)

Garaziko Bloñ seikoteak, Paxkal Irigoyen eta Maia Iribarne sortutako «Bañolet kantuz» diskoa zuzenera ekarri du, «Bañolet» film projektuko unibertso ameslari eta eroari bizi emateko xedearekin.

Epaimahaia:

Proposamen berezia da oso, kalitatezkoa eta, gainera, Ipar Euskal Herritik datorrena. Arauritik atera eta eskema erakargarriekin sortutako proposamena. Testura iradokitzaileak.

Eneritz Furyak



Eneritz Furyak —jaiotzako izen-deiturez, Eneritz Dueso Domenech— (Irun, 1993) egile abeslari eta musikari euskalduna da.

Kasernarat taldearekin aurkeztu zituen lehen aldiz berak idatzitako kantuak, baina ondotik bakarkako ibilbideari heldu eta 2017. urtean kaleratu zuen bere bakarkako lehen diskoa.

Saritutako lana: hhh


hhh (2024) disko luzean pop doinuekin, melodiekin, sintetizadoreekin eta dantza erritmoetaranzko joerarekin, azken urteetan landutakoaren emaitza eskaintzen digu Eneritz

Furyak musikari irundarrak. Esperimentaziotik, sustraieratik, zaratatik eta egungo gaietatik hurbil dagoen sinergiarekin.

Epaimahaia:

Folk mundu esperimentalago batetik elektronikara erabat salto egin du Eneritzek eta nola gainera. Zuzenekoari begira lanketa handia nabari zaio diskoari, dena bakarrik defendatzen duelako eta abangoardian koka dezakegu lortu duena. Elektronika komertzialetik aldentzen da baina club giro batean ere disfruta daiteke Eneritzren lana, eta hori ez da erraza. Beraz, eboluzio horrengatik guztiagatik, balorazio ona jaso du 'hhh' lanak.

Gorka Urbizu



GORKA URBIZU RUIZ (Lekunberri, 1977) musikari, konpositore eta ekoizle euskalduna da. Berri Txarrak taldeko abeslari eta gitarra izandakoa, besteak beste kantugintzan eta letragile gisa egindako bideagatik da ezaguna.


Saritutako lana: Hasiera bat

Gorka Urbizuk bere izenez sinatzen duen lehen diskoa da Hasiera bat. Hamar kantuk osatzen dute bilduma. Hamar aukera. Hamar erabaki. Izan zitezkeen beste batzuk, baina hauexek dira: Maitasun bat, Teoria bat, Tren bat, Toki bat, Janela bat, Kolore bat, Lilura bat, Etxe bat, Sute bat, Besterik ez.

Epaimahaia:

Bere konposizioen goxotasunagatik, melodia sinpleetatik, letra hunkigarrietatik eta moldaketa eta ekoizpen bikainetatik sortuak. Nortasun handiko diskoa, poesiaz eta edertasunez betea.

Libe



Bilbon jaioa bada ere Gasteizen bizi izan da txikitatik. 1998an Neubaten hasi zen eta Sorkun, Izaki Gardenak eta JP Lohian taldeekin ibilitakoa da.

2012 urtean Izaki Gardenak taldea osatu zuen beste lau lagunekin batera. 2014an bere lehen bakarkako disko bat atera zuen.


Saritutako lana: Azal ezten

Libe Kortazarrek gidatzen duen proiektua da, 3. diskoarekin itzuli dena. Giro eta atmosfera ameslariak eta una zeharo intentsoak doinu ederrekin uztartzen dituen.

Epaimahaia:

Proposamenaren kalitateagatik eta originaltasunagatik. Atmosfera pertsonalak sortzea lortzen du, ahotsa protagonista dela.

Olatz Salvador



Olatz Salvador Zaldúa (Donostia, 1990) euskal kantautorea eta musikaria da.

Skakeitan taldean teklatu eta abesbatzak egiten zituen 2010az geroztik, musika jaialdi ugarian parte hartuz. 2014tik, bakarkako ibilbide bat hasi zuen bere lagunak animatuta, eta bere konposizioak jendaurrean abestera bultzatu zuten.

Saritutako lana: Zainak eman

ZAINAK EMAN Olatz Salvadorren estudioko hirugarren lan kontzeptuala da, Gironako Olivera estudioetan ekoitzia. ZAIN hitzaren inguruko bidea eta argi bilaketa bat, bere lan arriskatu eta ausartena.

Epaimahaia:

Proiektuaren kalitateagatik, musika-ekoizpenagatik, letrei esker, eta diskoaren kontzeptuagatik. Era berean, oso azpimarragarria da arriskuaren eta zintzotasunaren arteko nahasketa, Olatzek leku berri baterantz eboluzionatzen baitu, bere esentzia alde batera utzi gabe.



Soinuak Haizean



Musika zabaltzeko Bilbon egoitza duen irabazi-asmorik gabeko elkarteak, musika hezkuntza-tresna gisa erabiltzeko asmoz sortua.

Saritutako lana: Soinuak Haizean kontzertua

Emozioak da bidaia honetako protagonista, eta zuzeneko musikari eta atrezzo koloretsu bati esker gure emozioak estimatzen eta bideratzen laguntzen digu, umorea galdu gabe soinu eta ikusizko bidaia batean.

Epaimahaia:

Musika klasikoa haurren artean zabaltzeagatik.

Verde Prato



Ana Arsuaga ezizenez "Verde Prato" (Tolosa, Gipuzkoa, 1994) musikari eta margolari gipuzkoarra da. Tolosan finkaturik dago eta 2015ean Serpiente taldea sortu zuen Beatriz Perales eta Elena Nuñezekin batera. Bi disko atera zituzten eta kontzertu ugari eman zituzten. Taldeak 2020ra arte iraun zuen.

2019an "Verde Prato" bakarkako proiektua abiatu zuen eta euskal folklorea hartu eta teknologia garaikidea erabiliz interpretatzen ditu.

Saritutako lana: Erromantizismoa

Denbora kontua zen Verde Prato eta Bronkio elkarrekin egotea. Bakoitzak denbora darama unibertso homologoak arakatzen, tradizioak mugitzen eta denbora-jauziak asmatzen.

Epaimahaia:

Proposamenaren nortasunagatik, basatia eta delikatuak aldi berean, abangoardia eta tradizioa nahastuz modu paregabe eta original batean.

Izaro Etxepare Musika Saria 2025



Euskal musikaren nazioartekotzea aitortzea.

Izaro Andresek hamar urte daramatza konpositore eta abeslari lanetan. Gainera, filmen soinu-bandak sortu ditu, dokumental bat protagonizatu eta zuzendu du, nazioarteko birak prestatu ditu eta eszenatoki gainean dantzatu du. Nondik datorren ahaztu gabe, beti ziklo berrietara irekita, goiburu batekin lan eginez: samurtasunaren iraultza

Epaimahaia:

- berrietara hedatzeagatik.
- Zabaltze lan horretan, euskara, munduko beste hizkuntza batzuekin uztartuz, hain ohiko ez dituen eremuetara eramateagatik.
- Talentu eta sorkuntza propioaren jabe izanda, euskara eta euskal kultura nazioartean zabaldu eta indartzeko trakzio lana egiteagatik.

Benito Lertxundi EHMBE Ohorezko Saria 2025



Euskal musikagintzan egindako ibilbidea eta egindako ekarpena aitortzea.

Benito Lertxundi euskal kantagintzaren aitzindarietako bat da. Bere ibilbide luzeak eragin handia izan du euskal kultura eta hizkuntzaren transmisioan. Bere herri-musikaren eta letra poetikoen bidez, hainbat belaunaldiren ahotsa eta bihotza bihurtu da. Bere diskografia oparoak eta konpromiso artistikoak erreferente gisa sendotu dute Euskal Herrian eta euskal diasporan.

Zabaldika laukotea Publikoaren saria 2025



Publikoaren aitortzea.

Zabaldika herrian (Nafarroa) kokatutako 650 urteko kanpai batek ematen dio izena laukote berezi honi. Hiru ahots, saxo bat eta historia duten eliza, tenplu eta lekuen erreberberazioak berak osatuko dute musika talde berritzaile honen soinu gorputza.

Zabaldika Laukotea Josetxo Goia-Arbe saxofoi jotzaileak asmatu eta pentsatutako proposamen berri bat da, non musika koralak -berari egindako urratze argi batek- emaitza heterodoxo eta ezberdina lortuko duen.

